

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten funtsezko baliabideak enpresaren jarduera eta helburuak lortzeko behar diren aktiboak eta tresnak dira. Baliabide horiek hainbat kategoriatan banatzen dira, eta bakoitzak enpresaren funtzionamendu egokia bermatzeko rol garrantzitsua du. Hona hemen gure enpresako funtsezko baliabide nagusiak:

1. Baliabide fisikoak:

Instalazioak: Arropa trukerako espazioa beharrezkoa da, arropa gordetzeko eta erakusteko. Lokal honek biltegi bat edo salmenta-gune bat izan dezake.

Materialak eta Produktuak: pertxak, apalak, armairuak eta manikiak izango ditugu, arropa ordenatuta eta ikusgarri edukitzeko.

Ekipamendu Teknologikoa: Ordenagailuak, telefonoak eta enpresako langileek lanerako behar duten beste material teknologiko batzuk.

2. Baliabide teknologikoak:

- Webgunea edo aplikazioa: Arropa trukerako, plataforma bat edukitzea lagungarria izan daiteke produktuak erakusteko, trukaketa prozesua errazteko eta bezeroekin komunikatzeko.

- Sare sozialak eta marketin digitala: Bezero potentzialekin harremanetan egoteko eta truke-aukerak promozionatzeko tresna teknologikoak izango ditugu.

3. Giza baliabideak:

- Langileak: Arropa jasotzeko, antolatzeko eta trukaketa prozesua kudeatzeko pertsona adituak eta atseginak izatea, bezeroei esperientzia ona eskaintzeko.

- Boluntarioak: Baliteke komunitateari zuzendutako arropa truke enpresek boluntarioen laguntza izatea, kostuak murrizteko eta solidarioagoa izateko.

4. Baliabide intelektualak:

- Marka eta irudia: Marka sendo eta erakargarri bat edukitzea, bezeroen artean konfiantza sortzeko eta enpresa erraz identifikatzeko oso lagungarria izan daiteke.



